

Covid19 Laguntzak Pasaiaako Udala II

Pasaiaako udalak 250.000€ko dirulaguntzak bideratuko ditu autonomoentzat eta mikroenpresentzat (merkataritza, ostalaritza eta pertsonentzako zerbitzuak).

Onuradunak

Beren kontura lan egiten duten langileek edo autonomoak eta merkataritza, ostalaritza eta zerbitzuen sektoreetako 10 langiletik behera dituzten enpresa txikiek, betiere, haien negozio zifrak milioi euroa gainditzen ez badute eta nahitaez itxi badute, edo diru-sarrera %75etik gora jaitsi dela egiaztatzen badute, 2019ko urritik 2020rako martxorako sei-hilekoan izandako batezbestekoarekiko.

Diruz lagundu daitezkeen kostuak

Martxoaren 1etik uztailaren 31ra artean egindakoak

- Hornidura, makineria, instalazio eta ekipamenduen mantentze gastuak.
- Langileria gastuak eta gastu sozialak, NBE eta prebentzio eta higiene material gastuak.
- Horniketa-gastuak: elektrizitatea, erregaia, ura, telefonia eta Interneterako konexioa.
- Aholkularitza gastuak.
- Desinfekzio-lanetarako kanpoko adituen laguntza-gastuak, larrialdi egoerari erantzuna emateko.
- Aseguru primei dagozkien gastuak.
- Banku-erakundeen finantzaketa gastuak, atxikitako ondasunak erosteko.
- Negozio lokalen errentamendu gastuak (baldintzekin).

Aurkeztu beharreko dokumentazioa

- E002 Ordezkapen idatzia (hala badagokio)
- E081 Eskaera-orria: Covid-19ak sortutako krisiari aurre egiteko laguntza zuzenak autonomo eta mikroenpresentzat
- E082 Justifikazioa: Covid-19ak sortutako krisiari aurre egiteko laguntza zuzenak autonomo eta mikroenpresentzat
- ER001 JEZ epigrafe zerrenda
- Alta eta baje ziurtagiria Jarduera Ekonomikoen Zergan.
- CATA agiria edota erantzukizunpeko adierazpena, 2020ko apirileko fakturazioa gutxienez % 75 murriztu dela adierazten duena.

Non eskatzen da?

Aurrez aurre

Donibaneko HAZ (Herritarren Arreta Zerbitzua) bulegoa

Arizabalo jauregia
Donibane kalea 19 20110 PASAIA
8:00 - 14:00

Trintxerpeko HAZ bulegoa

Alkateordetza
Euskadi etorbidea z/g 20110 PASAIA
8:00 - 14:00

Antxoko HAZ bulegoa

Hamarretxeta kalea 22-24 20110 PASAIA
8:00 - 14:00

Posta arrunta

Donibane kalea 19 20110 PASAIA

Internet bidez

Gorago aipatzen diren beharrezko AGIRI guztiak bete eta hasi online tramitazioa

Epea: Eskaerak aurkezteko epea, 2020ko urriaren 30a arte.